

## **SORALUZEKO 2025EKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK HELDUEN MAILA**

Soraluzeko Udalaren Kultura Batzordeak 2025eko Santiago eta Santa Ana Jaietako kartel lehiaketa antolatzen du, honako oinarriekin:

Lehenengoa.- Lehiaketan 18 urtetik gorako Soraluzen bizi den edozeinek har dezake parte.

Bigarrena.- Jai egitarauaren azalerako kartela izango da. Teknika librea eta nahi adina kolore eramango ditu. 35 zentimetroko zabalera eta 45 zentimetroko luzera izango ditu.

Hirugarrena.- Ezinbestekoa izango da karteletan “2025eko SORALUZEKO JAIAK. Uztailaren 24tik 27ra” agertzea, egile bakoitzak deritzen banaketaz.

Laugarrena.- Aurkeztutako lanak originalak izan behar dute, argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren batean aurkeztu gabeak. Adimen artifizialarekin sortutako lanik ez da onartuko.

Bostgarrena.- Egilearen nortasuna agerian uzten duen inolako identifikaziorik ez da onartuko, sinadura gabe aurkeztuko dira.

Seigarrena.- Kartelaren gai artistikoa lehiakidearen irudimen eta abileziaren esku uzten da, herriko bizitzaren zenbait alderdiri buruzko alegoriak aurkeztu behar dituelarik.

Zazpigarrena.- Kartelean pertsona-irudiak marrazten badira, orekatua izan beharko du gizonezko eta emakumezkoen kopuruak. Ez da marraztuko sexu-diskriminazioa eta homofobia erakuts dezakeen egoerarik.

Zortzigarrena.- 300 EUROKO (300 €) sari bakarra izango da.

Bederatzigarrena.- Sari hau Kultura Batzordeak emango du kartelen merezimendu artistiko eta sinbolikoari erantzunez eta egokiak iritzitako teknikoen aholkua jaso ondoren.

Hamargarrena.- Kartelak ekainaren 27ko eguerdiko ordu biak baino lehen aurkeztu behar dira Udaletxeko bulegoetan, euskarri gogorrean eta sobre edo karpeta itxi batean, barrualdean egilearen izen-abizenak, adina eta helbidea edo bizilekua eraman behar dituelarik.

Hamaikagarrena.- Lehiaketa honetara aurkeztutako kartelekin erakustaldi bat antolatuko da Udal Kiroldegiko erakusketa aretoan ekainaren 30etik uztailaren 4ra arte.

Hamabigarrena.- Sari banaketa uztailaren 4an, ostirala, izango da arratsaldeko 6:30tan Udal Kiroldegiko erakusketa aretoan.

Hamahirugarrena.- Kultura Batzordeak lehiaketa hau betegabekotzat aldarrikatu, zehaztutako saria eman gabe utzi edo aipamen berezi bat edo batzuk egin ditzake, aurkeztutako kartelak aztertu ondoren horrela baderitzo.

Hamalaugarrena.- Saritua ateratzen den kartela Udalaren esku geratuko da, honek argitara dezan.

## **BASES CONCURSO DE CARTELES FIESTAS DE SORALUZE 2025**

### **NIVEL DE ADULTOS**

La Comisión de Cultura del Ayuntamiento de Soraluze organiza el concurso de carteles de las Fiestas de Santiago y Santa Ana de 2025 con las siguientes bases:

Primera.- Podrá tomar parte en el concurso cualquier persona mayor de 18 años residente en Soraluze.

Segunda.- Será el cartel de la portada del programa de fiestas. La técnica es libre, y podrá llevar tantos colores como quiera. Tendrá 35 centímetros de ancho y 45 centímetros de largo.

Tercera.- Será obligatorio que en los carteles figure “2025eko SORALUZEKO JAIAK. Uztailaren 24tik 27ra”, con la distribución que cada autor/a considere.

Cuarta.- Los trabajos presentados deberán ser originales, no publicados ni presentados a otros concursos. No se admitirán trabajos creados con inteligencia artificial.

Quinta.- No se admitirá ninguna identificación que revele la identidad del autor, se presentarán sin firma.

Sexta.- Se deja a la imaginación y habilidad del concursante la formulación del tema artístico del cartel, con la única advertencia de que habrá de contener motivos alegóricos o alusivos a la vida local en sus diversas facetas.

Séptima.- En caso de dibujar figuras humanas, la presencia de hombres y mujeres habrá de ser proporcionada. No se dibujarán situaciones que puedan mostrar discriminación sexual y homofobia.

Octava.- Habrá un único premio de 300 EUROS (300 €).

Novena.- Dichos premios serán adjudicados por la Comisión de Cultura, previo asesoramiento de los técnicos que se crea oportuno, atendiendo al mérito artístico y simbólico que se aprecie en los carteles.

Décima.- El plazo de presentación de los carteles terminará el día 27 de junio, a las 2 de la tarde, debiendo ser presentados en las oficinas del Ayuntamiento en soporte rígido y en sobre o carpeta cerrada, incluyendo en su interior el nombre, edad, dirección o domicilio de su autor.

Onceava.- Con los carteles presentados se llevará a cabo una exposición en la sala de exposiciones del Polideportivo Municipal desde el 30 de junio hasta el 4 de julio.

Doceava..- La entrega del premio será el 4 de julio, viernes, a las 18:30 de la tarde en la sala de exposiciones del Polideportivo Municipal.

Treceava.- La Comisión de Cultura se reserva el derecho de declarar desierto el concurso, de no adjudicar el premio establecido o de conceder una o varias menciones especiales, si así lo estimare una vez calificados los carteles presentados.

Catorceava.- El cartel que resulte premiado quedará en propiedad del Ayuntamiento, para su publicación.